

SILVANO NEKAZARI BOLIVIAR TXIKIA

IRAKASLEENTZAKO GIDA



MUGARIK GABEKO
ALBAITARIAK

Laguntzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua
Departamento de Deportes y Acción Exterior

IRAKASLEENTZAKO BOLIVIARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA (Silvanoren jarduera garatzeko):

Karpetak Boliviako Altiplanoko eszenatokia dakar. Horren helburua da ikasleek ume boliviarraren bizitza hobeto ulertzea, Silvanorena, hain zuzen ere. Bide batez, beraien bizimoduarekin

alderatuko dute. Irakasleek kontestua hobeto ezagutu eta ulertu aldera, Boliviako informazio orokorra eta MGA- en proiektuen ingurukoa ere atxikitu dizuegu.

Geografia:

Boliviak 1.098.581 Km² azalera du (gutxi gorabehera Euskal Herria baino 53 aldiz haundiago!). 9 milioi biztanle baino gehiago ditu (soilik Euskal Herriak baino 3 aldiz gehiago); horietatik %40 landa-gunean bizi da. Populazioaren bizi-itxaropena 60 urtekoa da (Euskal Herriak 80koa du). Dugun irudi ohikoena Andeetako Altiplanoko basamortu eta gailur elurtuak bada ere, azaleraren zati handi bat Amazonasen dago; bertan, klima tropikala da eta oihana da nagusi.

Ekonomia:

Ekonomia eta ekoizpenari begira, herrialdea geldiuena pairatzen ari da. Urtero-urtero 100.000 gaztek baino gehiagok ez dute inolako lan aukerarik; hori dela eta, emigrazioa handia da, besteak beste, Europara. Historikoki, txirotasun egoeran bizi direla esan dezakegu, espainiarren kolonizazio garaitik datorkiona, alegia. Izan ere, meaztegi eta hidrokarburoen (herrialdeak dituen aberastasunak) ustiaketak bertako garapenean eraginik izan beharreen, gizarte ezberdintasunak eta gizakien esplotazioa baino ez ditu sortu. Hala bideratu dute atzerriko potentziek. Hirietako aldirietan eta landa-guneetan txirotasuna bada ere, hiri erdi eta haziendetan itzel aberatsak diren biztanle gutxi batzuk daude. Haien diru-sarrerera handiak nekazal-ustiaketa eta meatzetatik datozkie.

Osasuna, elektrizitatea, etxebizitza eta hezkuntza:

Landa-guneetako populazioak ez du ez oinarritzko osasun baldintzarik, ezta elektrizitaterik ere. Biztanleen %79k hezkuntza gabezi handiak dituzte. Osasun baldintza egokiak ez dira ematen eta, horrez gain, biztanleen %60k ez du etxebizitza duinik.

Geografia, klima eta laborantzak:

Silvanoren herria Altiplanoan kokatu dugu, 4.000metroko altueran, Oruro departamentuan. Bertako etxebizitzaren %70-ek ez dituzte bermatuta oinarritzko baldintzak. Orografikoki latza, eta oso klima hotza duen tokia da, nekazaritzaren garapena ia ezinezkoa zaie. Bertako produktuetatik bakarrenetarikoa patata da; hala ere, uztak hain dira urriak, biztanleen elikatzeko beharra zailtasun handiz berma dezake. Abeltzaintzan, berriz, lamelidoak (lamak eta alpakak) eta ardiak ditugu. Horien garrantzia ezinbestekoa da, hiruren produktu eta azpiproduktuak autokontsumo eta komertziorako bideratzen baitira. Biziraupenerako, Altiplanoko baserritarrek trukean aritzen dira: patata mota ezberdinak, ardiak, lamak, alpakak eta azpiproduktuak bestelako elikagai, jantzi eta medikamentuen truke. Haatik, inguruko baldintzek ez dute haien garapenean batere lagundu izan. Aitzitik, ekoizpenak behera egin du, elikagaien faltagatik, larren eskasiagatik, animalien gobernatze ezegokiagatik (bai osasunaren ikuspuntutik, bai ugaltza-prozesuaren ikuspuntutik) etab.

MGA-en lana Bolivian:

Mugarik Gabeko Albaitariak-ek bat egiten du eguneroko ahaleginean era zehatzean diharduten nekazari eta abeltzainekin: ekoizpen familiarretan aritzen direnekin; produktuak autokontsumorako edota bertoko merkatuetara bideratzen dituztenekin; eta ingurumena begirunez zaintzen dutenekin. Korporazio agroindustrial erraldoien esplotazioa ozenki salatzen dute. Horiek sustatuako ekoizpena intentsiboa eta esportaziorako bakarrik bideratutakoa da, eta, horrez gain, bakar batzuen poltsikoak beteko ditu, beraienak, alegia. Era berean, jokabide honek eragin lazgarriak ditu gizartean zein ingurugiroan. Horrez gain, gu nekazarien elkarteak indartzen saiatzen gara.

Abeltzaintza da jorratzen dugun arloetan garrantzitsuenetarikoa. MGA-eko kideok gure proiektuetan parte hartzen dutenei laguntzen diegu, haien haziendaren osasuna eta elikadura hobetuz. Animalia bat txarto elikatuta dagoenaen, sintoma nabarmen batzuk ditu: astiroago hazten da; gorputza era eskasean garatzen da; pisu txikiegia du; gutxi produzitzen du; ez du negu gorria pairatzen; eme gutxi izaten da ernari; abortu asko ematen dira; eta bildotsak ez dira behar bezala hazten. Horrelakoetan, zer egin dezakegu hango nekazariekin batera?

- Ureztatze-sistema ezberdinak eraiki: tutuen bidezkoak, ozinak zein motobonben bidezkoak.
- Abelburuak bazkatzeko larreak itxi. Herritarrak eta abereak elikatzeko larreak prestatu eta erein.
- Haziendaren maneju eta elikaduraren kalitatea errazten duten tresnen erabilpena bultzatu: belar-metak eta ikuiluak.
- Artaldearen osasun- eta gobernatze-kanpainak antolatu: badaude kanpo-parasitoak, odola surgatu eta gaixotasunak zabaltzen dituztenak (animaliei zein pertsoniei); eta organismoaren barruan dauden beste batzuk ere oso ugariak dira bertan (hesteetako arrak eta sudur-zuloetakoak). Horiek guztiak ekiditzeko, oso garrantzitsua da barne-desparzitazioak eta ikuiluaren eguneroko garbiketa. Gaixotasunak saihesteko, beharrezkoa da animaliak txertatzea. Tratamendu farmakologikoez gain, azpimarratzen da garbiketaren garrantzia eta sendaketa tradizionalen balioa.
- Komunitatearen borden eta ikuiluen mantenua.
- Haziendaren gobernatzeari eta azpiproduktuen prestaketari buruzko ikastaroak.
- Emakume-elkarteen sorrera eta beraientzako zentruen eraikuntza. Beraietan, komunitate ezberdinetako emakumeak bildu eta ikastaro espezializatuak burutzen dira: zuntzen aukeraketa eta hariilkatzea; haziendaren motzaldi-kanpainiak; charquearen prestaketa (eguzkitan lehortutako lama-haragi kontserba); emakumearen aitzindaritzaren sustatzeko ikastaroa.
- Merkatu-ikerketak egin aldera, merkatuetara eta banatzaileei bisitak, ardi eta lamak merkatua ondo ezagutzeko. La Paz-eko artisautza-azokara bisitak. Negoziaketak egin aldera, La Paz hiriburuko artisau-komertzianteei bisitak.
- Produktuen prestaketa: larrua eta gatzak. Nekazaritzarako ongarrien prestaketa.
- Animalien elikadura: larre naturalak hobetuz, ereindako bazkaren bitartez (garragarra, oloa, alpapa) eta bazka onduaren bitartez (siloa, belarra), ardi eta lamak elikadura hobetzen da.

SILVANO NEKAZARITXIKIA

(argibideak)

Sarrera:

Silvanoren jokuekin nekazaritza eta nekazarien garrantzia aztertuko dugu, baina nekazari Boliviaren baten ikuspuntutik. Silvano txikiak hemengo neska-mutilei zenbait ipuin kontatuko dizkie: kontakizunok, Boliviako Altiplanoan dauden nekazariei buruzko istorioak eta MGA (VSF) elkarteak haiekin egiten duen lana azaltzen dute.

Materialeen deskribapena:

- 14 irudi trokelatu eta horiei dagozkien euskarriak.
- Irudiak jartzeko 2 oinarri.
- 14 gutunazal.
- Ipuinak eta jarduera ezberdinak proposatzen dituzten 14 fitxa.

Prestakuntza eta jardueraren garapena:

- Gutunazalak zenbakitu (batetik hamalaura) eta bakoitzean dagokion testu-fitxa eta irudia gorde (irudiarekin batera, horri dagokion euskarria).
- Egiaztatu gutunazalaren zenbakiak pasarte eta irudiarekin bat egiten duela. Gutunazalak itxi.
- Gure proposamena, ekintza hau 14 egunez jarraian burutzea da. Halaber, posible da sesio labur batean edo bitan lantzea.
- Egunero, klaseko 5-10 minutu joko horretarako gordeko ditugu. Sesioak honela antolatuko dira:
 - Irudiak jartzeko erabiliko ditugun bi orri-oinarriak, klasearen bazter batean gorde dezakegun mahai batean jarriko ditugu.
 - Lehenengo gutunazala ireki eta irudiari erreparatuko diogu: euskarrian jarri eta bi orri-oinarrietan ipiniko dugu.
 - Testu-pasartearen ozen irakurriko dugu.
 - Jarraian, irakurritako pasarteari buruzko iruzkina egingo da, denek ondo ulertu dutela ziurtatzeko.
 - Interesgarria izan daiteke informazio osagarria eramatea: mapak, argazkiak... Bide batez, umeen bizitzak Silvanoren bizitzarekin erkatu daitezke, Silvanoren bizimoduak irudikatzen (fitxa bakoitzean, jarduera ezberdinak proposatzen dizkizuegu).
 - Hurrengo egunean, bigarren gutunazala irekiko dugu; eta, horrela, kontakizuna amaitu arte. Gutun azalak ireki ahala, oinarrian gero eta irudi gehiago egongo dira, mahaiaren ganbela moduko paisaia bat osatu arte.
 - Paisaia hura umeei margotzeko marrazki eta irudiez horni daiteke, baita hareaz, harriz, kortxoaz eta erraz lor daitezkeen materialez ere.
 - Nagusiek Silvanoren bizitzaren oinarrituz, kapitulu berriak idatz ditzakete.

I. Fitxa

SILVANO



Nire izena Silvano Martínez Vázquez da. Hamar urte dauzkat eta Boliviako Altiplanoko herrixka batean bizi naiz. Bolivia itsasos haraindi dagoen herrialdea da, Ameriketean.

Gure herrialdea eta zuona ezberdinak dira oso: gurean ez dago itsasorik, baina mendi garaienen gailurretan itsasoa bezain zabalak diren lakuak daude. Hain da menditsua, tontorretan bizi garela ematen du.

Gurean, gauza gutxirekin bizitzen ohituak gaude. Nire herriko etxeek ez dute elektrizitaterik, eta gauez petroleo-kriseiluak pizten ditugu. Kotxe gutxi batzuk baino ez daude, eta ez dugu bideokonsolarik, jostailu elektrikorik, segapotorik ezta ordenagailurik ere. Herriko umeoi kalean eta larretan zehar jolastea gustatzen zaigu; eta holaxe ibiltzen gara ia egunero.

Ideia nagusia:

Protagonista eta bere herrialdea ezagutu (Silvano eta Bolivia).

Proposatutako ekintzak:

- Ikasgelako umeek, Silvanoren deskripzioa oinarri hartuta, antzekoa sor dezatela (euren herrialdea, herria, jolasteko era, jokuak). Ondoren, ume boliviarrarenarekin alderatzeko.
- Mapamundian Bolivia kokatu edo kartoizko herrixkaren ondoan Boliviako mapa jar dezatela.
- Euskal Herriko umeek duten jolasteko eraren inguruko hausnarketa egin (bideojokuak, telebista, ordenagailua...) eta kalean jolasten zenbat denbora ematen duten galdetu. Bolivian olgetan ibiltzeko duten moduarekin alderatu. Lehen nola jolasten ginen eta oraindik ere herrialde askotan nola egiten duten inguruko hausnarketa egin.

2. Fitxa

PETRONA



Emakume hau gure ama da. Petrona Vázquez du izena. Bitxia iruditzen bazaizue ere, bera eta herriko beste emakume gehienak ez dira sekula kapela eta pontxo barik ateratzen etxetik. Horrela, burua babestu eta ez dira hotz izaten. Ama etxea gobernatu, goizean goiz jaiki, egurretan joan eta ordu luzez dihardu lanean.

Etxean ama, arreba Dulcita, bikiak eta bostok bizi gara. Bikiak bihurriak dira oso, beti olgetan ibiltzen dira eta ezkutaketan jolasten dira. Gauzak behin eta berriro errepikatu behar dizkiegu kasu egin dezaten: “Batu arropa! Garbitu hortzak!”.

Gure aita oso jatorra da, baina gutxitan ikusten dugu elkar. Lanera urrutira joan behar izan zuen, gure lurrak ezer gutxi ematen duelako, ia jateko beste ere ez. Enpresa handi baten lurretan jornalari dabil. Lur haietan fruta tropikalak hazi eta Europara esportatzen dituzte. Lan gogorra egiten du, ordu asko ematen ditu bertan, baina oso diru gutxi irabazten du; hala ere, diru apur hori etxera bidaltzen digu beti.

Idea nagusia:

- Emakumeen lana oso gogorra da eta ez da aintzat hartzen.
- Etorkinek ez dute nahi dutelako bidaiatzen, beste irtenbiderik ez dutelako baizik.
- Etorkinek gogor dihardute lanean, haien familiengandik urrun, etxera dirua bidali ahal izateko.

Proposatutako ekintzak, ondoko ideia hauen inguruko hausnarketa:

- Emakumearen lana etxean: zeintzuk dira etxeko lanak? Nork egiten ditu? Seme-alabek gurasoei laguntzen al diete ?
- Txirotasunak emigratzera bultzatzen du. Herritik hiri zein beste herrialdeetara. Askotan, gutzia abandonatu eta bizia bera ere arriskuan jarriz.
- Umeei galdetu etorkinik ezagutzen duten. Horrela balitz, nola eta zergatik emigratu zuten itaundu.

3. Fitxa

LAMAK ETA ARDIAK



Etxean lama eta ardi talde txikia dugu.

Lamak Amerikako zonalde honetan bakarrik bizi diren animalia barregarriak dira. Ederto asko egokitzen dira hotzetan eta haragia eta artilea ematen digute. Zama eroateko ere balio dute, astoak izango balira bezala.

Nik artaldea belarretan eramatea oso gustuko dut. Animalia guztien izenak ezagutzen ditut: "Penka", "Blanquita", "Rolina", "Caloche"... Hori bai! Lamak haserretuz gero, oso burugogorak dira; horrelakoetan, serio jarri eta errieta egin behar izaten diet, kasu egin diezadaten.

Ideia nagusia:

- Abeltzaintza eta nekazaritza oinarrizkoak dira laborarien bizitzetan. Munduan milaka eta milaka pertsona lurra ematen dienari esker bizi dira.
- Zentzuzko ustiaketak gosetea ekidin dezake.
- Nekazaritzarako lurzailek, abeltzaintzak eta arrantzak munduko biztanle guztiontzat beste janari ekoitzi dezakete. Arazoa ekoizpen-baliabideen banaketa bidegabean datza (lur emankorrak, ura, animaliak, haziak, teknologia, maileguak...).

Proposatutako ekintzak:

- Lamak inguruko informazioa bilatu: zertarako balio duten... Bertoko abelburuekin alderatu.
- Umeei galdetu abeltzainik ezagutzen duten eta zer-nolako etekinak jasotzen dituzten. Euskal Herriko baldintzetara ondoen egokitzen diren arraza autoktonoen inguruko informazioa bilatu.
- Inguruko abere-ustiaketaren bat bisitatu (posible balitz).

4. Fitxa

LARREAK

Mendiotan hotz handia dago eta apenas euririk ez; beraz, lamek eta ardiek jaten duten belarra eskasa da, haztea asko kostatzen baitaio. Horrexegatik, egunero, gero eta urrunago joan beharra daukat, animaliek jan ditzaketen larre berrien bila.

Egun batzuetan joan-etorrian lau ordu eman behar izaten ditut. Txikitan, ordea, larre eta belar ugari zuen finka handi batean bizi ginen. Sasoi hartan, nire aitak lurra landu eta ortua zaintzen zuen; lamak ere bere zaintzapean ibiltzen ziren eta ni eskolara joaten nintzen, zuek guztiok bezala.

Aita ez dagoenetik, aldiz, goizean goiz altxatu eta animaliak bazkatzera eraman behar izaten ditut.



Idea nagusia:

- Nekazari txiroak lurrik txarretan bizi dira. Lur emankorrenak, aldiz, enpresa erraldoiek erosten dituzte, maila handian ekoitzi eta esportatzeko asmoz. Beraz, elikagai horiek ez dira herrialdean bertan gose direnen ahoetara inoiz heltzen.
- Abeltzaintzak eta nekazaritzak landa-guneetan bizitzeko aukera ematen dute, baldin eta lur aberatsa, ura eta animalientzako bazka lurra lantzen dutenen esku baldin badaude.

Proposatutako ekintzak. Ondoko gaien inguruko hausnarketa egin:

- Abeltzaintza estensiboak baliabideen aprobetxamendu egokiagoa egiten du.
- Baserritar xumeen nekazaritza da tokian tokiko biztanleentzat eta merkatuetarako elikagaiak ekoizten dituen.
- Abeltzaintza eta nekazaritza intentsiboek inbertsio handiegia eskatzen dituzte (ongarriak, pentsua, eraikinak) eta, gainera, kutsagarriagoa da (hondakinak, gasoleoa...).
- Abeltzaintza eta nekazaritza ekologikoak aukera egokiena izan daitezke. Horrela, larreen egoera eta abelburuen gobernatze era hobea daiteke.
- Umeen lanari buruzko hausnarketa egin.
- Imajinatu gurasoek kanpora atzerrira joan behar duten egoerak.

5. Fitxa

MERKATUA



Niretzat ostiralak dira asteko egunik dibertigarrienak. Herrian merkatu eguna dugu ostiraletan eta amarekin batera, hara joaten gara, animaliaren bat, esnea eta haragia saltzeko asmoz. Irabazitako diruarekin patatak, artoa eta, noizean behin, hotzik ez izateko jertsei potoloren bat ere eros ditzakegu.

Bertan postu asko daude. Emakume eta gizonak salerosketetan, berriketan eta barreka ibiltzen dira. Batzuetan, elkarri oihukatu eta, prezioa dela eta, eztabaidatu egiten dute, baina, azkenean, kontua adostu eta elkarri eskua emanez ixten dute tratua.

Merkatuan herriko beste neska-mutiko guztiekin elkartu eta olgetan ibiltzen gara egun osoan zehar. Gauean, etxeratzean, neka-neka eginda, oso goiz oheratzen naiz.

Idea nagusia:

- Merkatu eta denda lokalen garrantzia.
- Hipermerkatuen eragin kaltegarriak komertzio lokalean, ekoizle txikiengan eta ingurugiroan.

Proposatutako ekintzak. Ondorengo gaien inguruko hausnarketa egin:

- Herriko merkaturan eta dendetan erosteak aberastasuna sortzen du.
- Hipermerkatuek merkeago saltzen dutenez, dendak ixtera behartzen dituzte.
- Batzuetan, herrialde txirotuetakoko nekazariei elikagaiak merke-merke erosten dizkiete.
- Hipermerkatuek elikagaiak oso urrutitik ekartzen dituzte. Garraioan erregai asko kontsumitu, bilduki asko ekarri eta ez dira hain gozoak.
- Herriko merkatura joan eta galdetu saltzaileari haien produktuen jatorria zein den. Hausnarketa: zein bide egiten dute gure elikagaiak eta zenbat erregai gastatzen da horretan?
- Tokian tokiko produktuak alperrik galtzen dira, jendeak ez dituelako erosten.

6. Fitxa

ANIMALIA ARGAL ETA GAIXOA

Batzuetan nire ardiak gaixotu egiten dira, janari, ur eta zaintza faltagatik. Gure animaliak garau on eta belar freskoz hazi, eta, gainera, lurak landuko bagenitu, ondo bizi ahalko ginateke. Baina hiritik eta beste herrialde batzuetatik etortzen den jendeak lur emankorrenetatik botatzen gaitu. Gero, haien lur emankor horiek makinariarekin eta ongarri kimikoekin lantzen dituzte eta uztak atzerrira esportatzen dituzte: kafea; azukrea; kotxeetarako gasolina; edota haien abelburuak gehiegi gizentzeko guk faltan dugun garaua.

Mendietara alde egin behar izaten dugu. Bertan larrek eskasak dira, animaliak ez dira loditzen, lurak antzuak dira... Horrexegatik, nire aita urrutira lanera joan behar izan zuen: bizimodua ateratzeko.



Idea nagusia:

- Baliabideak eskuratzeko ezintasunak nekazal produkzioa murrizten du.
- Batzuetan, nekazariak bortizki desjabetu edo lurak merke-merke saltzera behartzen dituzte.

Proposatutako ekintzak. Hausnarketarako gaiak:

- Munduan ematen den lur eta aberastasunaren bidegabeko banaketa.
- Baliabideak eskuratzeko ahalmena oinarrizkoa da, ekoizpen eta garapenerako.
- Esportaziorako monolaborantzak, landa-guneetako txirotasun iturri.
- Baserritarren halabeharrezko emigrazioa, bizitza hobea lortu aldera.
- Umeei galdetu zer egin dezaketen bidegabekeria horiei aurre egiteko.

7. Fitxa AMAIA



Behin batean, urrutiko herri batetik emakume bat heldu zen. Hain zegoen urrun bere herrialdea, beste kontinente batean zegoen! Amaia du izena eta baserritarra eta albaiaria da bera. Soinean beti eramaten du jertse potolo bat eta artilezko txanoa, hotzik ez izateko. Bera dioenez, Euskal Herrian hotz dago, baina ez Bolivian beste, mendiak ez baitira hain altuak. Nire ustez, bera ez da hemengo hotz honetara egokitu...

Hurak asko ikasi du gugandik, eta bere herrira itzulitakoan, herrialde aberatsetako ohitura batzuk aldatu beharko dituztela konbentzitzeko asmoa du.

Txirotasunaren arrazoia gero eta gehiago nahi duen jendearengan dagoela konturatu da. Bere herrialdean, jada, ez dutenez lantzeko lur, ezta metalak lortzeko meategi gehiagorik, gurera etortzen dira. Hona heltzean, gure lurretatik desjabetzen gaituzte, han saltzeko gauza gehiago eta gehiago eramateko.

Berak esan digunez, etxera itzultzean, eskola eta ikastoletako ume guztiei mezu argi bat eramango die: ez ditzatela behar ez dituzten horrenbeste gauza eros, horiek gurea bezalako herrialdeetan ekoizten baitira sarri.

Idea nagusia:

- Kooperatzaileen lana ez da bakarrik herrialde txiro eta urrunetako jendea laguntzea; gauzak aldatzea gure esku dagoela ere azaltzen saiatzen dira; aldaketa horiek hemendik bertatik egin ditzakegula.
- Txirotasunaren arrazoiatariko bat, Lehen Munduan dugun kontsumo gehiegikeriagatik ematen da. Kontsumo horrek lehengaien eskaria edo beharra dakar. Eta lehengai horiek herrialde txirotuetatik ekartzen ditugu.
- Guk ere txirotasuna ekiditeko zerbait egin dezakegu: tentuz kontsumituz eta jakiak erostean bertokoak, garaikoak eta ahal bada produktu ekologikoak erosiz. Horrela ere, gure baserritarren bizimodua eta gure landa ingurunea zainduko dugu.

Proposatutako ekintzak. Hausnarketarako gaiak:

- Gertuko jendeak herrialde txirotuetara egindako bidaiak komentatu (Cancún, Errepublikak Dominikarra, Egipto...).
- GKE ezberdinen inguruko lanari buruz hitz egin: zer dira? Zertan aritzen dira?
- Aparatu elektronikoen kontsumoari buruz hitz egin (sakelekoak, iPod-ak, bideokontsolak, mp3-ak...) edota herrialde txirotuetan egindako arropari buruz. Herrialde ekoizleatara biztanleengan duen eraginez hausnarketa egin.
- Eskolako beste kideak sentsibilizatzeko ekintzaren bat proposatu (antzerkia, erakusketa, hormirudiak...), hausnarketarako gaiak fitxetan agertzen direnak izanik: kontsumismoa; monolaborantza; nekazarien desjabetzeak; inmigrazioa; herrialde txirotuetan.

8. Fitxa

KANPIN-DENDA

Amaiak gure herrian lan egiteko lokal bat eskatu digu. Auzokide guztion artean, kanpin-denda erraldoi bat eraiki dugu, gure bilerak egiteko.

Hasiera batean, uste genuen bera aberatsazela eta animalia osasuntsu eta lure emankorrak erosteko diru asko emango zigula. Baina Amaiak ez zigun ez dirurik ezta janaririk ekarri. Bere esanetan, guk elkartu eta kooperatibak sortzeko ahalmena dugu. Era berean, alkatearekin hitz egin eta gure lurak berreskuratzeko salaketa egin genezakeela esan zigun. Horrela, lurak berreskuratzean, animaliak bazkatzeko eta lantzeko erabil genitzakeen.



Horrezaz gain, dendan ikastaro ugari ematen ditugu eta abereak zaintzeko eta lurra lantzen ikasteko praktikak egiten ditugu. Batzuetan, Amaia dugu hizlari, beste batzuetan, aldiz, bertoko albatari eta nekazariak hitz egiten digute. Orduan, errazagoa egiten zaigu, haiek gure moduan hitz egiten dutelako eta Boliviakoak izatean, gure herrialdea oso ondo ezagutzen dute.

Idea nagusiak:

- Kooperazioa ez da soilik dirua, jakiak edota ikastaro teknikoak ematea.
- Bertokoen parte-hartzea indartze aldera, bilerak edota bertoko teknikarien eta nekazarien inplikazioa eska dezakegu.
- Pertsonen eskubideen aldeko jendearen batasunak, donatiboek baino askoz gehiago lor dezake.

Proposatutako ekintzak. Hausnarketarako gaiak:

- Karitatea eta herrialde txiroetuei dirua bidaltzearen inguruko hausnarketa: donatiboak emateak eta janaria bialtzeak ez du ezertarako balio, baldin eta tokian bertan ez bada aberastasunik sustatzen. Aberastasun lokalak bertan ekoiztea eta bitzta duina lortzea ekarriko du. Gogoratu honako esaldi hau: "Ez eidazu arrainik eman, arrantzan irakats eidazu".
- Haien garapen-bidean gutxiagotuak diren pertsonen inguruko hausnarketa: pobrezian bizi den jendea ez da eskalea. Haiek behar duten gauza bakarra aukera hobe bat da. Pobrezian bizi denaren egoera ez da zorigaitzogatik gertatu, bidegabekeria eta aberastasunaren banaketa desorekatuagatik baino.
- Batasunak indartzen gaitu. Kooperatiben sorrera banakakoen etekina baino handiagoa izan daiteke. Kooperatiben bitartez, gastuak, baliabideak eta komertzializazioa elkarlanean egiten da.

9. Fitxa

OSASUNA ETA MEDIKAMENTUAK



Amaiak beti esaten digu garrantzitsuena ez dela animaliak sendatzea, zaintzen ikatea baino. Bera maiz ibiltzen da herriko agureekin berbetan, antzina animaliak nola eta zerekin sendatzen zituzten jakin aldera. Antzina ez zegoen medikamenturik, baina animalia gaixoak ohiko erremedioekin osatzen zituzten. Amaiak gauza mordo bat irakatsi zigun eta,aldi berean, guk berari unibertsitatean ikasi ez zituen hainbat gauza irakatsi genizkion.

Orain, ahal den orotan, ohiko sendabideak erabiltzen ditu, medikamentuak oso garestiak baitira. Horrez gain, ez da komeni medikamentuak gehigi erabiltzea. Nire lamei, niri bezalaxe, ez zaizkie txertoak bat ere gustatzen!

Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa antzinako erara egin daiteke, baina hobetzeko ikasi ditugun gauza berri guztiak uztartuz. Animaliei ez zaizkie gehiago produzitu dezaten medikamenturik eman behar. Era berean, ahal dugun heinean, ez ditugu landetan ongarri kimiko eta pozoiak botako. Benetan behar badituzte baino ez dizkiegu medikamentuak emango.

Ideia nagusiak:

- Abeltzaintza eta nekazaritza ekologikoak nekazal ekoizpenerako alternatiba osasuntsuak dira. Ekoizpen ekologikoak ez du produktu kimikoen erabilera sistematikorik egiten.
- Bada nekazal munduari lotutako jakintza izugarri handi eta baliogarria. Pertsona nagusiek ezagutzen dute eta haiek dira transmisoreak. Tamalez, galtzen ari den jakintza da, gazteak landa-gunea uzten ari baitira.

Proposatutako ekintzak:

- Umeei galdetu senide nekazaririk/abeltzainik duten. Animaliek dituzten izurrite eta gaixotasunen inguruan ere galdetu.
- Aiton-amonek nekazal munduari buruz kontatutakoaz galdetu.
- Euskal Herriko nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoari buruz informazioa bilatu (interneten zein liburutegian).
- Hausnarketa: “hobe prebenitzea sendatzea baino”.

10. Fitxa

ARTALDEARENTZAKO BORDA

Oraintxu arte, lamek eta ardiek kanpoan egiten zuten lo. Hori dela eta, gauzez, eta batez ere neguan, hotz handia izaten zuten. Gainera, azeriek bildotsak jaten zituzten. Animaliak babesteko bordak eta oilotokiak eraiki behar genituen; baina, zoritxarrez, herriko familia batek ere ez zuen horretarako diru nahikorik.

Orduan, herriko nekazariak ideia izugarri bat izan zuten: guztion artean, beharrezkoa zen dirua eskatu eta, auzolanean arituz, oilotoki eta bordak eraiki zituzten.




Idea nagusiak:

- Irteerarik gabekoak diruditen arazoei irtenbide berritzaile eta bideragarriak aurkitu ahal dizkiegu.
- Auzolanak elkartasuna sustatu, ahaleginak batu eta etekinak bikoizten ditu.

Proposatutako ekintzak:

- Auzoan, herrian, hirian, eskolan... eman den elkarlanen berri eman.
- Elkarlaneko adibideak jar itzazue (futbol atea mugitu, talde kirolean aritu...). Guztiok batera eta ahots ezberdinetan kanta ezazue abesti bat.

II. Fitxa PUTZUA



Bordak eraiki eta gero, guztion ahaleginen batasunak dakartzan abantailez konturatu ginen, arazoei aurre egiterako orduan. Badaude sendi batek bakarrik egin ezin dituen gauzak; aldiz, guztion elkarkidetzaz, erraz konpon daitezke. Adibidez, animaliei lehorte sasoian edaten emateko putzu baten eraikuntza.

Belarra lehortzen eta belar- metak egiten ere ikasi dugu. Prestatu eta gero abereei jaten emateko erabiltzen dugu, eguraldi txarra dagoenean animaliak ezin direlako landetara irten.

Bordak, putzua eta belar-metak eraiki ditugunetik, lamak eta ardiak askoz indartsu eta lodiago daude, eta, ondorioz, esne gehiago ematen digute.

Idea nagusiak:

- 10.fitxako berberak (“Artaldearentzako borda”).
- Baliabideen eskuratzearen ideia berreskuratu: urik gabeko lurra pobreak dira. Bertan ezin da landatu eta animaliek ezin dute bazkatu. Arazoa hauxe da: nekazariak lurzail lehorretara bidaliak izaten direla.


Proposatutako ekintzak:

- Uraren eta berorren aurrezpenari buruzko garrantziaz hitz egin.
- Guztion artean, ura aurrezteko ideia-zerrenda egin.
- Alderatu Bolivian eta beste herrialde batzuetan ura lortzeak eskatzen duen esfortzu handia hemengo errealitatearekin (emakume boliviar batek iturritik etxera egin beharreko bide luzea).

12. Fitxa

GAZTAK

Gure amak gaztak egiten ditu edan edo saldu ezin izan dugun esnearekin. Horrela, ez da alperrik galtzen eta den-dena aprobetxa dezakegu. Gaztatik ateratako gatzura txerrikumeei ematen diegu, ondo loditu daitezen. Gazta gozo-gozoa da eta, gainera, merkatuan saldu edota beste produktu batengatik truka dezakegu.



Herri bakoitzak bere gazta mota berezia du; den-denak dira gozoak eta den-denak ezberdinak, ardiak arraza ezberdinetakoak baitira. Horrez gain, larre ezberdinetan jan eta gazta egiteko modua bera ere ezberdina izaten da.

Gure gaztak salduz, laster, behar ditugun gauzak erosteko beste diru aurreztu ahal izango dugu. Akaso, zorte apur batekin, margozteko koloretako arkatx kutxa eta kuadernoa ere erosi ahal izando ditut!

Idea nagusiak:

- Nekazal munduan ez da ezer alperrik galtzen. Ez dago soberakinik, den-dena aprobetxatzen baita.
- Eskualde bakoitzeko produktuak ezberdinak dira. Herriko dendetan, tokian tokiko barietateen balioaz jabetu.
- Maila handian eta modu industrialean ekoiztako produktuen homogeneotasunaz hausnartu. Bildukiz gainezka, ehundaka edota milaka kilometrotara garraiatuak eta hipermerkatuetan salgai dauden horiek dira.

Proposatutako ekintzak:

- Umeei esan gurasoei eskatzeko egun batean zehar botako lituzketen bildukien bilketa egin dezatela, gero, klasera ekartzeko. Bestela, klasean bil ditzatela, aste betean zehar, haiek jolastokira ekarritako elikagaien bildukiak. Horren ostean, ondoko hauen inguruko hausnarketa egin:
 - Zenbat hondakin sortzen da etxean?
 - Jolas zein janariak dituzten bilduki guztien inguruan pentsatu.
 - Umeek beste toki batzuetan bizi diren senideen etxeetan jaten dutenari buruz hitz egin dezakete.
 - Itxura ezberdineko jaki ezberdinen argazkiak bilatu (adibidez, arto barietate ezberdinak) eta supermerkatukoa beti berdina dela egiaztatu, hau zergatik da horrela?

13. Fitxa

OILOAK



Kanpin-dendako bileretako batean, herritarrok zera erabaki genuen: herriko familiarik aberatsenari txita batzuk erosi eta sendi txiroenen artean banatzea. Hala ere, ez genizkien txitak inolako baldintzarik gabe oparitu, ezta pentsatu ere! Txitak hazi eta oilo bihurtzean, txitak izango zituzten; beraz, txita berri horietako batzuk herriko beste familia batzuei oparitu beharko zizkieten; eta, era berean, haiek gauza bera egin beharko zuten.

Esan eta egin! Denbora gutxian, oiloak daude herriko ia etxe guztietan eta oiloek jarritako arrautzei esker, askoz hobeto elikatzen gara orain.

Ideia nagusiak:

- Kooperazioa: hasierako inbertsio txiki batekin eta amankomuneko helburu zehatzarekin, lorpenak bikoiztu egin daitezke familiek parte-hartze aktiboa eta lankidetzan aritzeko ahalegina eginez gero.
- Abeltzaintza eta nekazaritza ekologikoa eta kontsumo lokala: gaur egun, sistema industrialean, oiloak kaiola txikietan sartuta bizi dira eta bertan jartzen dituzte arrautzak. Hala ere, aske bizi diren oiloen arrautzak kontsumi ditzakegu; horrela, herrikoren bati erosiko dizkiogu eta... askoz gozoagoak dira!

Proposatutako ekintzak:

- Talde lanean aritzeko jolasak proposatu, kooperazioa sustatze aldera.
- Ikasgelara produktu ekologikoak ekarri (tomateak, arrautzak...), eta modu industrialean ekoiztutakoekin alderatu: bigarrenak, koloretsuagoak, disdiratsuagoak izaten dira, baina ez dira ekologikoak bezain usaintsu eta zapoetsuak.

14. Fitxa

ESKOLA

Orain badakigu elkarlanak bitza errazten duela. Gure animaliak osasuntsuago daude eta gehiago ekoizten dute.

Gure ahaleginaren ondorioz, gure lurra ere berreskuratu dugu. Gainera, enpresek ez gaituzte hemendik, gure lurretatik, botako, jendeak gero eta gehiago erosten duelako nekazari txiki eta komertzianteen produktuak, bai herrian, zein merkatuan.

Azkenean, gure aita etxera itzuli da. Berriz ere, nekazari txiki bihurtu da, horixe baita gehien gustatzen zaiona. Gure amak esan dit, jada, ez dela beharrezkoa ni egun osoan zehar landan lanean aritzea. Bere ustez, eskolara itzuli beharko nintzateke, gauza gehiago ikas ditzadan... ni benetan poztu naiz! Agian, nagusitan, unibertsitatera joan eta nahi dudana ikasiko dut... baina, egia esan, gehien gustatuko litzaidakeena nekazari izaten jarraitzea da; gure gurasoak bezalaxe.

Nagusitan, gu ezagutzera etor zaitezketel! Nire herrialdeak liluratuko zaituzte... Laister arte, lagunok!



Idea nagusiak:

- Landa-gunean geratzea, gazteentzako aukera on bat izan daiteke, baita unibertsitatera helduko diren horientzat ere.
- BUKAERAKO LANA. Edukien errepasso orokorra.

Proposatutako ekintzak:

- Taldean, ekintzaren balorazioa egin.
- Ekintzak baratze-koadernoan islatu.